

Danimarkako Harald erregea eta Bluetooth

SVRN ROSBORN



Ezkerrean, Danimarkako Harald erregearen bataioa, 960. urtean. Goian, Bluetooth sistemaren ikurra, hagall (H) eta berkana (B) errunek osatua, Harald Blåtand erregearen omenez.

DANIMARKA, 958. Gorm Zaharra erregea hil zen, eta haren seme Harald Gormsonn izendatu zuten oinordeko. Aita hil eta koroa semeak hartzen zuen lehen aldia zen Eskandinavian, erresuma bikingoetan, boterea eskuratzeko, klanetako buruzagi boteretsuenak elkarren aurka borrokatzeko ohitura baitzegoen.

Haralden boterea haziz eta hedatuz joan zen, eta 970. urtean Norvegiako errege bihurtu zen. Haren botere eta ondasun grina ez zen Eskandinaviara mugatu, eta gure lurretara ere hurbildu zen; 978an Kantauri itsasoko kostaldera iritsi zen, Iberiar penintsularen iparraldean hainbat sarraldi egiteko asmoz.

Gainera, eskandinaviarrak kristautasunera konbertitzeko giltza izan zen Gormen semea. 960. urtean, germaniarrek bidalitako apaiz baten bisita jaso zuen Haralddek. Bikingoen bederatzai jainkoak existitzen ez zirela eta zeruan jainko bakarra, jainko kristaua, zegoela esan zion apaizak. Erregeak, orduan, froga garbi bat eskatu omen zion germaniar apaizari: burdin gorria jarriko zion eskuetan eta bere jainko bakarrak babesten bazuen, apaizak esandakoa sinetsiko zuen. Kondairak dioenez, burdin gorriak ez zuten apaiza erre. Orduan, erregeak bataio-

tzea eta erresuma guztia kristau bihurtzea erabaki zuen. Haren mendeko gehienek ez zieten berehalakoan beren sinesmen zaharrei uko egin, baina kristautasunaren hazia ereinda zegoen.

Haraldek ez zuen eskandinaviarren ohiko itxura. Azal eta ile beltzaranekoa zen, eta, horregatik, herritarrek Blåtand esaten zioten (*blå* hitzak beltzaren esan nahi du, eta *tand*-ek, aldiz, gizon handia). Ingelesezt, ordea, Bluetooth (hortz urdin) goitizena jarri zioten. Batzuek diote Blåtand hitzarekin duen antzekotasun fonetiko hutsagatik itzuli zutela izena. Baina beste teoria batek dio Haralddek eritroblastosi fetala izan zuelako eta eritasun horrek hortz-haginak urdintzen dituelako jarri ziotela ezizena.

Harald 986. urte inguruan hil zen, Ingalaterra konkistatu zuen bere seme Svendek hala aginduta, ustez. Itxuraz, aita abiatutako oinordekotza sistema gustuko zuen Svendek, baina ez zuen heriotza naturalaren zain egoteko pazientziarik.

Handik hamaika mendera, Ericson enpresak telefonia teknologia berria garatu zuen eta Bluetooth izena jarri zion eskandinaviar erregearen omenez. ■



Arrastoak

Krisiak bultzatuta sortu zen Monopoly jokoak

1929ko gainbehera ekonomikoaren ondoren, Charles Barrow izeneko Pennsylvania-ko (AEB) ingeniaria lanik gabe geratu zen. Hala, lur eremuak salerosteko eta horietan etxebizitzak nahiz hotelak eraikitzeko mahai joko bat egitea bururatu zitzaion. Monopoly izena jarri zion, eta Parker Brothers jostailu enpresari aurkeztu, 1934an. Konpainiak jokoaren diseinuan “52 oinarritzko akats” topatu zituen, ikasteko konplexua zela erabaki zuen, partidek luzeegi joko luketela uste zuen eta, horrenbestez, joko berria ekoizteari uko egin zion.

Orduan, Barrowek jokoak bere kabuz inprimatzea erabaki zuen. Monopolyak 1934ko Eguberrietan izandako arrakasta ikusita, azkenean, Parker Brothersek eskubideak erosi zitziok. Ingeinari langabetua aberastu egin zen, jokoak 26 hizkuntzatarat itzuli eta merkaturatu zuten, eta ordutik hona Monopolyan 500 milioi pertsona inguru aritu direla kalkulatu da. Gehienak, mahai baten inguruan, fikzioan; eta gutxi batzuk, benetako terrenekin espekulatzen. ■

